

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

17. zenbakia**Data 1998-01-28****1022 orria**

7 UDAL ADMINISTRAZIOA**ERRENTERIAKO UDALA****Zakurren edukitza eta zaintzari buruzko ordenantza**

ERRENTERIAKO UDALA Iragarkia

Jendeari jakinarazteko daogkion epea amaitu ondoren, Udaltzak 1997ko urriaren 31an ospatutako Osoko Bilkuran aurkeztutako alegazioak eta idarokizunak erabakitzeaz gain, ondorengo Txakurrak edukitzea eta zaintzea Arautiko duen Udal Ordenantzaren testua behin betikoz onartu du, honako hau izanik: ZAKURRAK EDUKI ETA ZAINTZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA ZIOEN AZALPENA

Udal Ordenantza honek xedetzat Errenteriako udalbarrutian dauden zakurrak nola zaindu, eduki, ibili, erakutsi eta nola sal-erosi behar diren arautzea du. Ordenantza honek ondorioak sortuko ditu zakurrak erroldatuak izan edo ez, eta jabeen helbidea edozein izanda ere.

Hori dela eta, zakurrak behar dituen gutxiengo tratu, garbitasuna eta babesa arautzen da. Eta halaber, denboraldi baterako zaintzera dedikatzen diren establezimenduek bete beharreko arauak; kontsultategi, klinika eta ospitalek bete beharreko baldintza eta ezaugarriak, alegia, zakurrak nola jaso, sofriarazi gabe nola hil eta zikiratu behar diren.

Azkenik, ikusketak eta bigilantzi-lanak nola egin behar diren, arau-haustek eta ipiniko diren zigorrak. I. TITULUA XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. Artikulua.

Ordenantza honek xedetzat Errenteriako udalbarrutian dauden zakurrak (*Canis familiaris*) zaintzeko, edukitzeko, ibiltzeko, erakusteko eta saldu eta erosi egiteko arauak ipintzea ditu. Ondorioak sortuko ditu zakurrak erroldatuak izan edo ez, eta jabeen helbidea edozein izanda ere, gisa horretan zakur eta jendearen arteko elkarbizitza hobetu egingo baita, eta ber gauza, sanidadea, lasaitasuna, osasuna eta pertsona eta ondareen segurtasunarekiko arrisku-posibleak.

Horretarako zakurrek jaso behar duten gutxiengo tratu, garbitasuna eta zainketa, identifikazio eta babesa finkatzen dira, eta era berean, espezialdutako establezimenduetan nola egon behar duten, jaso beharreko osasun-arreta eta sal-erosketarako arauak ipintzen dira.

2. Artikulua.

Indarrean dauden Hirigintz arauetan xedatutakoaren arabera, udal lizentzia beharko dute izan ondoren aitatzten diren iharduerek.

a) Zakurrak hazitzen ibiltzen diren tokikoek, denboraldi baterako edo beti edukitzen dituztenek, etxeetarako, ehizarako edo erabilpen zientifikoetarako saltzen dituztenek.

b) kontsultategi, klinika eta zakurrak egon edota zaintzeko ospital edo bestelako establezimenduek.

c) Tarteka edo beti zakurren erakusketak egiten dituztenek. II. TITULUA ANIMALIAK
EDUKITZEKO I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

3. Artikulua.

1. Ordenantza honen ondorioetarako etxabetzat joko da bizitzeko eta zaintzeko pertsona baten menpekotasuna duen animalia.

2. Abandonatutako aberetzat joko da jatorri edo jabearen inolako identifikaziorik ez duena, pertsonaren baten konpaniarik gabe dabilena, baita ere identifikazioa izanik, eta jabeak edo baimendutako pertsonak galdu dela salatu gabe, bere gisa dabilena.

4. Artikulua.

1. Oro har etxe partikularretan zakurrak edukitzeko baimena emango da, beti ere alojamendu aldetik instalakuntza eta animalia kopuruak permititzen badute. Alegia, begiratu egingo da garbitasun eta osasun baldintzak nolakoak diren, bizilagunentzat edo orokorrean arriskurik edo deserosotasun objetiborik eragiten duen edo ez, edo animalia berarentzat edo beste animalientzat euren artean sortutako aparteko zerbait badagoenik.

3. Era berean debekatu egiten da parke eta lorategi publiko eta urbano gisa kalifikatutako terrenoetan zakurrak ukuiluratuta edo erdi ukuiluratuta edukitzea.

4. Halaber debekatuta dago urbanizagarria ez den zoruan, esaterako baratzeetan, zakurrak edukitzea, baserri edo nekazalaldeko etxebizitza ondoko lursailetan izan ezik.

5. Obrak zaintzeko zakurrak erabiltzen dituzten pertsona edo enpresek, janaria, lo egiteko kamaina eta zainketa egokiak emango diete. Zakurra herrian, obra burutu artean bakarrik egongo balitz, berorren nagusiek transeunte modura zakur-eroldan inskribatuko dute, aipatu obrak bukatutakoan baja ematen duela jakinaraziko delarik.

6. Debekatu egiten da zakur arriskutsuak edo basatiak kanpoan libre uztea edo jendearentzako irekita egoten diren lokaletan.

5. Artikulua.

1. Espreski debekaturik dago:

a) Janariak eta edariak fabrikatu, saldu, biltegietan jaso, erakusteko, garraiatzeko eta manipulatzeko lokaletan eta ibilgailuetan zakurrak sartzeari eta bertan edukitzea.

b) Kirol, kultur, artistiko edo aisialdiko ikuskizun publikoak ospatzen diren lokaletan sartzeari eta bertan egotea, halaber debekaturik dago, igerileku publiko eta osasun zentro edo antzekoetan sartzeari espreski debekarik dagoenetan.

c) Garraio publikora, ohiko linea edo zerbitzu diskrezional eta bidailariei destinatutako ibilgailuetan zakurrak ibiltzea.

2. Jendearentzat irekitako gainontzeko titularrek eta mota guztietako alojamendu-etxeek, euren iritzien arabera, euren etxeetara zakurrak sartzeari debeka dezakete, horretarako sarreran ikusteko moduan debeku-seinalea ipini beharko dute. Bestalde, nahiz eta sartzeko establezimenduko buruaren baimena eduki, zakurrak koilare eta uhala batekin atxikita egon beharko dute.

3. Kultur elkarte, aisialdikoak, bizilagunen komunitateko toki komunetan, etab. moduko toki pribatuetara zakurrak sartu ahal izateko, aipatu erakunde horietan dauden arauen esanetara egongo dira.

4. Zakurren jabeek inolaz ere ez dituzte utziko zakurrak lorategi eta parterretan sartzeari. Horrezaz

gainera, udal ondare edo instalakuntzetan egindako kalteak kobratuko dira eta tokatzen diren erantzunkizun zibil eta penalei erantzun beharko dute.

6. Artikulua.

1. Hala ere, aurreko artikuluetan xedatutakoak ez du eraginik izango ikusteko akatsak dituzten eta toki ezberdinetara, hala nola, ostatueteetara, establezimenduetara, lokal eta garraio publikoetara joateko zakurren beharra dutenengan. Aitatutako establezimendu horien artean sartzen dira ospital publiko eta pribatuak, eta osasun-etxeak.

2. Ikusteko akatsdunak, eskatzen badiote, zakurra-gidaria dela egiaztatu beharko du, baita ere zakurraren osasun baldintzak betetzen dituela.

3. Zakur-gidaria hori gaixo antzera baldin badago, zakar itxurakoa, zikina, edo, oro har pertsonentzat arriskua sor badezake, ezin izango da sartu aurreko artikuluan aitatutako lekuetara.

7. Artikulua.

1. Ematen den itxuragatik, garbitasunagatik eta bizikidetzagatik, debekaturik dago zakur- gorotza bide eta plaza publikoetan uztea, haurrentzako parkeetan, parterretan, lorategietan eta oro har, jendea apaindu eta ibiltzen den tokietan. Hori dela eta, zakurrekin dabilten pertsonak espaloi ertzera eta hustubideetara eramango dute zakur-gorotza, edo Udalak horretarako espreski jarritako tokietara.

2. Zakur- gorotza espaloi, lorategi edo jendea ibiltzen den tokietan eginez gero, animaliarekin dagoen pertsona edo jabeak arduratu beharko du, aipatu gorotza hori desegin edo bidezko tresnaren batez kentzeko.

3. Arau hau hausten denean, udaltzainek zakurraren jabeari edo eramaten duenari zakurrak egindakoa ken dezan eskatu ahal izango diote.

4. Ez dira lorategizat edo berdegunetzat joko, baldin eta bertan haurrak ez badira jolasten, ezta jendea ibiltzen, alegia, Udaleko langileak belarra ez badute moztutzen, ezta lorazaintzako lanak egiten.

8. Artikulua.

1. Zakurren jabeak edo edukitzaileak arduradun dira zakurrak garbi eta osasuntsu edukitzeko, janaria eta ura emateko, behar bezala zaintzeko, albaiteriarengana eramateko, nahikoa ariketa fisiko eginarazteko, Autoritateak agintzen dituen osasun neurri prebentibo eta administratiboak hartzeko, eta halaber, arrazari dagokion eta behar fisiologiko eta etologikoen arabera, lo egiteko toki txukuna jartzeko.

2. Zakurraren jabeak zakurrak gaixotasun kutsakorra duela uste badu, albaitariari jakinarazi beharko dio eta honek dagokion agintariei jakinarazi, baldin eta zoonosis gisako gaitza duela susmatu edo baieztatzen badu.

3. Pertsonak kutsatu daitezkeen moduko gaixotasunen bat daukaten zakur guztiak, kolegiatutako albaitari batek hala diagnostikatuta, eta bere ustetan hiltzea hobe bada, baimendutako sistema eutanaziko baten bidez egingo da jabearen gain. Halaber hil egingo dira senda ezineko eritasunak dituztenak eta zakurraren jabeak behar adina kasu egiten ez diotenak.

9. Artikulua.

Zakurrak igogailuan igo edo jeitsi egitekotan, beste pertsonarik ez dagoenean egingo da, baldin eta hori esigitzen bada igogailu hori dagoen tokian.

10. Artikulua.

Edonola ere, debekaturik dago,

1. Zakurrei tratu txarra edo sofriararaztea edo mina eta justifika ezineko angustia sortarazten dien edozein gauza eragitea.
2. Abandonatzea.
3. Gorputzaren atalaren bat moztea.
4. Kalte fisiko edo sikikoa eragin diezaketen droga edo botika ematea, nahiz eta hori lehiaketaren baterako errendimendua gehitzeko izan.
5. Bizitzeko lain janari ez ematea edota garbitasun-osasun aldetik toki egokietan ez edukitzea.
6. Berez egin ez dezaketen gauzak eginaraztea edo tratu iraingarriak suposatzen dutenak.
7. Zakur-joka jokuak antolatu eta egitea.
8. Bide publikoan zakurrak iltzea, nahitaezko kasuren batean ez bada.
9. 14 urtetik beheragoko pertsoneri zakurrak saldu, eman edo lagatzea eta mentalki gauza ez diren pertsoneri baldin eta guraso-aginte edo tutela dutenek baimenduta ez bada.
10. Zakur saltzen ibiltzea, baldin eta espreski baimendutako feri edo merkatuak ez badira.

11. Artikulua.

Baldin eta zakurren jabeek aurreko artikuluetan adierazitako betebeharrak ez balituzteke beteko behin eta berriz, edo garbitasun-osasun arrazoiak direla eta, alkateak, udal zerbitzu teknikoek txostena egin ostean, toki egoki batera zakurrak eramateko agindua eman dezake jabeen kontura, eta gainera, beste edozein neurri hartzeko agindua eman, zigorrak ere jarri ahal izango direlarik. **II. KAPITULUA.**
ZAKURREN IDENTIFIKAZIO ETA ERROLDA

12. Artikulua.

Zakurren jabeek, «Errenteriako Udaleko Animalien Erregistro»an inskribatu beharko dituzte jaiotako edo erosten denetik hil bateko epe- barruan, hori bestelako erregistro ofizial eta pribatuetik aparte. Era berean, adin horretatik aurrera urteroko sistema bidez edo araututako sistema elektronikoko bidez identifikatuko dira, eta bizi guztirako kode bat asignatu.

13. Artikulua.

Ordenantza honen bidez «Errenteriako Udaleko Animalien Erregistroa» sortzen da, eta bertan, hasieran zakur mota guztiak sartuko dira, alegia, Errenterian beti edo denboraldi baterako daudenak.

Administrazio izaera duen Erregistro Publikoa da, informazio lanak egiteko eta Trafikoa, Garraioa eta Hiritarren Babeseko Udal Esparruaren menpean.

14. Artikulua.

«Errenteriako Udaleko Animalien Erregistroa» ondorengo baliabideen bidez antolatua izango da:

- a) Inskribapen-liburua.

b) Agirien artxiboa.

a) Inskribapen-liburua informatika bidez antolatuko da, eta bertan, zakur bakoitzeko ondorengo datuak jasoko dira:

Titularraren edo daukanaren identifikazioa, eta hala badagokio: izena, deiturak, N.A.-zk.a, helbidea eta telefonoa.

Identifikatzeko kode-alfanumerikoa eta inskribatzeko unean zakurraren osasun egoera adieraziz adierazgarri bat.

Zakurraren arraza, kolorea, sexua, adina eta izena.

Zakurra identifikatzen lagunduko duen beste edozein ezaugarri, jabeak nahiko balu, berorren argazkia ere bai.

b) Agirien artxiboak zakurraren bizitzan sor litezkeen informazio administratiboa eta legezkoa edukiko du.

15. Artikulua.

Horrezaz gainera, zakur-jabeek zakurraren osasuna jasoko duen kartila bat edukiko du. Bertan jabearen edo titularraren datuak adieraziko dira. Identifikazio kode alfanumerikoa eta animalia osasun-egoeraren adierazgarria. Era berean, mota, arraza eta sexua, adina, gaitasuna, izena eta zehatz- mehatz identifikatzeko beharrezkoa izango den oharrak (argazkia ere bai jabeak horrela nahiko balu). Modu berean, txertu-egunak ipiniko dira, zein albaitarik egina den adieraziz; bizkarroiak kentzeko eguna eta osasunaren aldeko gainontzeko gauzak. Jabeak erantzunkizun zibileko aseguru-poliza izango balu, poliza-zenbakia adieraziko da eta aseguru-konpaniaren datuak. Kartila edo identifikazioa galduz gero, berehala eman beharko du ezagutzera eta gero beste bat berreskuratu.

16. Artikulua.

Zakurra hil delako baja, desagertu, ebatsi, edo beste toki batera eramateagatik, zakurraren arduradunek jakinaraziko dio udal administrazioari hamar eguneko epe-barruan gertatzen denetik kontatuta. Horretarako zakurraren osasun- kartila ekarriko da, eta salaketaren kopia izanez gero. Epe horretan bertan, gertatuz gero, jabearen helbide aldaketa edo transferentzia jakinaraziko da.

17. Artikulua.

Identifikazio-zerbitzua eta zakurraren osasun-kartila egitea jabearen gain izango da. III. KAPITULUA. ZAKURREI BURUZKO ZEHAPEN BEREZIAK

18. Artikulua.

Zakurrak uhala eta kolarearekin ibili beharko dituzte kalean edo pertsonak ibiltzen diren beste lekuetan; moturrekoa erabiliko dute arraza, izaera eta ezaugarriak direla eta arriskutsu xamarrek diren zakur guztiek. Alkatetzak egoeraren arabera muturrekoak ibilarazteko agindua eman dezake.

19. Artikulua.

1. Abandonatutako zakurrak Administrazioak jaso ditzake bere zerbitzu propio bidez edo kontratatuko norbaitekin. Harrapatzeko eta eramateko erabiliko diren bitarteko garbitasun-baldintzak egokiak izango dira, eta animaliei sofrimendurik eraginarazi gabe.

2. Aurreko puntuan aitaturako zerbitzuan (propioa edo konzertatua) egongo dira zakurrak gutxienez hogeita hamar egunez. Jabeak berreskuratu nahiko balu jabea dela demostratu beharko du eta zakurraren zainketa eta mantenu-gastuak ordaindu.

Aipatu zerbitzuko albaitariaren ustetan zakurraren osasun-egoera, arriskua edo animaliak sofrituko balu, lehen aitaturako epea behar adina murriztuko litzateke.

3. Esandako epe- barruan inork ez balu erreklamatu, identifikatu gabeko zakurra, udal baimenarekin eta ahalmena daukaten zerbitzu teknikoaren txostenarekin, zera egin ahal izango da:

Apropiatu.

Eskatzen duenari eta animalia osasun- administratibo egoera erregulatzen duenari lagatu.

Animaliak babesten dituen elkarte bati lagatu

Eutanasi bidez hil.

4. Zakurrak berekin identifikazioa eramango balu, jabeari behar bezala jakinaraziko zaio eta honek zazpi lanegun izango ditu berreskuratzeko, jasota egon den tokiko gastuak ordaindu beharko dituelarik. Aitaturako epe horretan jabeak ez balu berreskuratuko, aurreko atalean aurrikustako zerbitzetara destinatuko da.

5. Zakurren hilketa sufrimendurik gabe eta berehala kontua kenduta egingo da, albaitariaren kontrol eta ardurapean.

20. Artikulua.

1. Zakurrek pertsoneri eta ondareei kalterik egin ez diezaieten, herritarrek udal osasun zerbitzuei jakinarazi egingo diete abandonaturako zakurrak dabilzala, berauei kalean janaria ematea debekaturik dagoelarik.

21. Artikulua.

1. Zakurrak ohozka edo zauri sakonak egin dituztela frogaturakoan, udal albaitari zerbitzu propioan edo konzertaturakoan bigilantziaren jarriko dira 14 egunez, hain zuzen eraso jasandako pertsonen behar duten tratamendua zenbaterainokoa den ikusi arte. Zakurra lehen aitaturako tokitik erretiratu aurretik, zakurraren jabeak zakurraren estantzi-gastuak ordainduko beharko ditu.

2. Zakur-erasogilearen jabeak obligatuta daude erasotutako pertsonari edo bere ordezkari legalei datuak ematera, baita ere eskatzen dieten agintariei.

Betebehar hau zakurraren jabearen edo zakurradunaren gain izango da, edo aurrekoak ez baleude, gertaeraren berri duen edonoren gain.

3. Egoera epizootikoak permititzen dutenean eta beti albaitariaren onespenerarekin, eta espreski adierazitako jabearen ardurapean, obligaturik egongo den albaitariak gutxienez hiru aldiz miatu ahal izango du hozka egindako pertsona, azkena aldia hozka egin osteko hamalagarren egunean egingo delarik. Albaitariak, aitaturako zakur horri alta eman aurretik, ziurtagiri bat egin beharko du ikuskapen horien emaitza adieraziz, guzti hori bidezkoa bada.

22. Artikulua.

Errenteriako Udalak bere udal barrutiko kaleetako zakur-hilotzak jasoko ditu, bidezko zerbitzu

propioa sortuz edo kontratatuz.

23. Artikulua.

Hilotza etxe partikular, establezimendu edo albaitari-klinika batetik jaso beharko balitz, Udalaren zerbitzu propioa edo kontzertatutakoa etxeetatik jasotzera pasako da, zakurraren jabeak edo edukitzaileak ezarritako tasak ordainduko beharko dituelarik. II. KAPITULUA. ZAKURREN KONTSULTA, KLINIKA ETA OSPITALAK

24. Artikulua.

Anbulategi modura zakurren kontsulta-klinikatara dedikatutako establezimenduak eta osasun tratamenduen aplikapenak, Albaitari kontsultategi, Albaitari klinika eta Albaitari ospitale gisa sailkatuko dira.

1. Albaitari kontsultategiak, gutxienez harrera- gela eta kontsulta eta senda-kurak eta operazio txikiak egiteko tokia beharko du izan.

2. Albaitari klinikak, gutxienez harrera-gela, kontsulta-gela, operazioak egiteko erreserbatutako gela, erradiologi instalakuntza, laborategia eta berpizteko posibilitateak izango dituen tokia beharko du izan.

3. Albaitari ospitalak, Albaitari klinikarako eskatutako baldintzaz gainera, eguneko 24 orduetan osasun- zainketa izango duen ospitalizatutako gela eduki beharko du.

25. Artikulua.

Establezimendu guzti hauek Udalaren baimena beharko dute izan eta lurraren pareko solairuan kokaturiko lonjatan bakarrik jarri ahal izango dira, Albaitari ospitalak izan ezik, izan ere, azken hauek ezin izango baitira etxebizitzak dituzten eraikinetan iharduera hau burutu. Era berean, ezin izango da jarri zakurtegietan, baldin eta beroriek aipatu kontsulta horien jabearenak izan eta gainontzeko dependentzietatik behar bezala isolatuta ez badira, alegia, nahiz establezimendu batetik zein bestetik zuzenean sartzeko aukerarik gabe eta biak eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Zakurraren ileari dagozkion mozketak eta garbitze lanak egin nahi izanez gero aparteko toki bat beharko da izan.

Alabaitarigintzako ospitalak ipintzeko baimenak etxebizitzetatik aparte kokatuta dagoen eraikin baten kokatuta bakarrik emango dira, horretara dedikatzen den eraikina eta itxia, eta gutxienez 20 metro karratu beharko ditu izan ospitale plaza bakoitzeko eta nahikoa toki libreekin.

26. Artikulua.

Ekipamendu eta instalakuntzek sektoreari dagozkion arauak bete beharko dituzte, eta horrezaz gainera:

- a) Zoruak iragazkaitzak, gogorak eta garbigarriak izango dira.
- b) Paretak 1,75 metroko altura arte azulejatuak izango dira, gainontzekoa eta sapaia garbitasuna, zainketa eta desinfektatzeko modukoak izango dira.
- c) Edateko moduko ur beroa (gutxienez 80° C-koa) eta otza jarri beharko dira.
- d) Gorotz-ondarrak, kurako materialak eta gaixotasun-hondakinak ontzi itxietan gordeko dira.

e) Txakurrek egin daitezkeen gorotzak zakar poltsa impermeable eta itxietan kenduko dira.

f) Instalakuntzetako, laneko tresnak eta ibilgailuen garbitasun lanak establezimenduko langileak egingo dituzte, hain zuzen ihardueraren beharrek eskatzen duten bezain maiz. Horretatik aparte eta urtean behin gutxienez lokala desinfektatu eta desinsektatuketa egingo da, horretarako espreski baimendutako enpresa baten bidez.

27. Artikulua.

Albaitarigintzako klinika, kontsulta edo ospitale martxan jarri ahal izateko derrigorrezkoa izango da kolegiatutako albaitari-profesional batek zuzendaritza teknikoa izatea, eta establezimenduan burutuko diren albaitari-iharduera guztiak lana burutzeko gauzatutako kolegiatuak izatea.

Debekaturik dago establezimendu komertzialetan edo hauen dependentzietan tarteka albaitari kontsultak jartzea, batez ere botikategiko bulegoetan, janaridendatan, ostalaritzan edo zaharberritze eta animalia babesteko erakunde edo elkarteek okupatutako lokaletan. IV. TITULUA ZIGORRAK I. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAGATIKOAK

28. Artikulua.

Ordenantza hau dela eta arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak izango dira, beti ere osasuna, zabarkeria, eragindako kaltearen larritasuna eta errenzidentziaren arabera sailkatuko dira.

29. Artikulua.

Arau hauste arintzat joko dira:

a) Ordenantza honetako garbitasunarekiko eta segurtasunarekiko edota hiritar lasaitasunarekiko betebeharrak ez badira betetzen.

b) Zentsu-identifikazio gabe zakurrak edukitzea.

c) Behar adinako zainketa eskaini ez daitekeen tokietan zakurrak edukitzea.

d) Zakurrak gaizki tratatzea edo berari ez dagozkion moduko portaera ematea.

e) Araudiak, 4,5,7,8 eta 18 artikuluetan xedatutakoa.

30. Artikulua.

Arau-hauste larritzat joko dira:

a) Zakurrak beharrezko lain janari eta behar ez bezalako instalakuntzetan edukitzea osasun-garbitasun ikuspuntutik.

b) Zakurren esterilizazioa, gorputz atalak kentzea eta hilketak, albaitariaren kontrolik gabe edota Animalien babeserako Legea edo bere garapenerako arauen kontra egitea.

c) Txertatu gabe edo derrigorrezko tratamenduak egin gabe edukitzea.

d) Baimenarik gabeko zakur salmenta.

e) Establezimenduek zakurrak denboraldi batez edukitzeko baldintzak, hazketa edo salmentarakoak edo urriaren 29ko 6/1933 Legean ipinitako betekizun eta baldintzak, animaliak babestekoa edo garapen araukoak, ez betetzea.

- f) Zakurrak gaizki tratatzea edo erasotzea beharrik gabeko sofrimendua, zauriak edo mutilazioak eraginez.
- g) Zakurrei zuzenean edo janariarekin sofrimendurik eragingo dion ezer ematea.
- h) Kalteak eragin ditzaketen txakurren gorde eta zainketan behar den arduraren ez izatea.
- i) Sofritzen ari direla agerikoa denean albaiariaren esku ez uztea.
- j) Bidezko baimen administratiborik gabe zakurrei ikuskizunetan parte hartuaraztea.
- k) Hiru arau-hauste arin egitea, ebazpen finko bidez isuna ipiniz espediente zigortzailea hasi baino lehenagoko azken bi urteetan.

31. Artikulua.

Arau-hauste oso larritzat joko da:

- a) Zakurra hiltzea eraso bidez edo pozoina emanez.
- b) Zakurrak abandonatzea.
- c) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzeko zakurrei anastesiak, drogak edo beste gauzak, hain zuzen mantsotasuna, errendimendu fisiko hobea edo euren portaera aldaraziko duen beste edozein gauza ematea.
- d) Pozoindutako janariak kanpoan jartzea.
- e) Debekatutako ikuskizunetan zakurrei parte hartu araztea.
- f) Hiru arau-hauste larri egitea, ebazpen finko bidez isuna ipiniz espediente zigortzailea hasi baino lehenagoko azken bi urteetan. II. KAPITULUA. ISUNAK

32. Artikulua.

1. Arau-hausteak ondoren adierazten den moduan zigortuak izango dira:

- a) Arau-hauste arinak 5.000tik 50.000ra arteko isunarekin.
- b) Arau-hauste larriak 50.001etik 250.000ra arteko isunarekin.
- c) Arau-hauste oso larriak 250.001etik 2.500.000ra arteko isunarekin.

Diru-kopuru hauek urtero kontsumoko prezioaren indiziaren arabera eguneratuko dira, eta isunak aurreko urtekoa kontuan hartuz jarriko dira. III. KAPITULUA. ISUNAK JARTZEKO AHALMENA

33. Artikulua.

1. Isunen zenbatekoa sailkatzeko, ondoko puntuak hartuko dira gogoan:

- a) Gizarte edo osasun ondorioa eta egindako arau-hausteak eragindako kaltea.
- b) Dirua irabazteko asmoa eta arau-haustetan egindako kaltea.
- c) Behin eta berriro araua hautsi izana. Errikapentzat joko da Ordenantza honetan aurrikusitako arau-haustea egiteagatik bide administratibo finko bidezko ebazpena dela eta espediente santzionatzailea

bost urteko epe-barruan emana balego.

d) Arau-haustea errutasun mailan aringarri edo astungarri zentzuan eragin dezakeen beste edozein gauza. Horretarako garrantzia handia edukiko du haurra edo diskapazitatuen aurrean erabilitako indarkeriak.

2. Ahal den neurrian eta administrazio sektoreko berezitasunak eskatzen dituen matizazio eta egokipanekin, hurrenez hurren juridikotasun eta errutasun aurkokoari buruzko arau penalak aplikatuko dira, aipatu sektorean gertaturiko beste gertaerei hein berean atenditzeko aukerarik kendu gabe.

3. Arau ezberdinetan araututako bi edo gehiago arau-haustek gertatuko balitz, zenbateko handiagoko isuna ipiniko da, zigorrak ipintzeko erakundearen esku geldituko delarik.

34. Artikulua.

1. Animaliak zaintzeko urriaren 29ko 6/93 Legean araututako foru erakundeek izan dezaketen isuna jartzeko kalterik gabe, Ordenantza honetako arau- haustek Udalak zigortuko ditu.

2. Arintzat jotako arau-haustek hasi eta ebazteko organo ahalduna, indarrean dagoen araudiaren arabera, Udala, Alkate- Presidentea izango da.

3. Larritzat jotako arau-haustek hasi eta ebazteko organo ahalduna Udalbatzarra izango da.

4. Oso larritzat jotako arau- haustek foru organo ahalduak ipiniko ditu isunak.

5. Udaltzaingoko agenteak ordenantza hau bete arazteko ahalmena edukiko dute. Horretarako euren aurrean gertatutako gauzaz edo jakinarazi ostean bidezko txostenak egingo dituzte, Udal Osasun Zerbitzuari dagokion laguntza emateaz gainera. **INDARGABETZE XEDAPENA**

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honen aurkako ordenantza, erreglamendu edo udal bandoak. **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Udalbatzaren behin-betiko onespren-akordioa Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratzen den biharamunean.

Errenteria, 1998ko urtarrilak 15. Miguel Buen Lacambra, Alkateak. (191)(465)